

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 3981

*EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 27koa, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearena, zeinaren bidez eman eta ukatu egiten baitira 2024ko urriaren 15eko Aginduan ezarritako laguntzak (2024ko urriaren 15eko Agindua, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2024. urterako, nekazaritza-ekoizpen primarioko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzak –Handitu Innova Programa 2024–).*

2024ko azaroaren 4an arau hau argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (214. zenbakia): 2024ko urriaren 15eko Agindua, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2024. urterako, nekazaritza-ekoizpen primarioko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen oinarriak (Handitu Innova Programa 2024).

Aipatu aginduaren 12. oinarrian ezarritakoaren arabera, 2025eko ekainaren 6an Elikagai Politika eta Industriako zuzendariak, kontuan hartuta Balorazio Batzordearen txostena, ebazpen-proposamena igorri zuen. Proposamen hori jaso du organo ebazle honek.

Arauk 13. oinarrian ezartzen duenez, laguntzak eman eta ukatzeko, ebazpena igorri beharko du Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak, Elikagai Politika eta Industriako zuzendariak emandako ebazpen-proposamena abiapuntutzat hartuta.

Aipatutako behin betiko ebazpen-proposamena ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

I. eranskinean agertzen diren pertsona edo erakundeei laguntzak ematea, eranskinean bertan adierazten den xederako eta zehazten diren zenbatekoetan.

Ebazpenaren zenbateko osoa 166.000,00 eurokoa da.

II. eranskinean agertzen diren pertsona edo erakundeei laguntzak ukatzea, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiaren ondorioz.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du.

Ebazpen honen aurka pertsona edo erakunde interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dezakete Elikadura, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 27a.

Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea,  
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2025eko irailaren 23a, asteartea

## I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA  
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	IFK/NAN	Inbertsio lagungarria	Laguntza
00003-HIN2024-53	Aiarbi, S.L.	B95595435	415.000,00 €	166.000,00 €

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	IFK/NAN	Ukatzeko arrazoa
00001-HIN2024-53	Aberekin, S.A.	A48165468	Ez da enpresa txiki edo ertaintzat hartzen. Nekazaritza eta basogintzako eta landaguneetako estatuko laguntzetan aplikatu beharreko zuzentarauen 2. kapituluaren 22. atala (2022/C 485/01).
00002-HIN2024-53	SAT N 1215 Etxalde	V01022805	Deialdiaren Aginduaren 9. oinarria. Neikerren txostena negatiboa da. Ez du betetzen dirulaguntzarako oinarrizko baldintza: proiektua ez da berrikuntza teknologikotzat jotzen.
00004-HIN2024-53	Armoki Kooperatiba Sozietate Txikia	F04943346	Deialdiaren Aginduaren 9. oinarria. Neikerren txostena negatiboa da. Ez du betetzen dirulaguntzarako oinarrizko baldintza: proiektua ez da berrikuntza teknologikotzat jotzen.
00005-HIN2024-53	Behi Larrea, S.L.	B01183151	Deialdiaren Aginduaren 9. oinarria. Neikerren txostena negatiboa da. Ez du betetzen dirulaguntzarako oinarrizko baldintza: proiektua ez da berrikuntza teknologikotzat jotzen.